

BORTZIRIETAKO ZAIN-TZA

Zaintza lanen diagnostikoa, antolaketa bidegabeari aitzin egiteko tresna

 **JENDARTEA** / Maider IANTZI GOIENETXE

Bortzirietako zaintza lanen diagnostikoa eta ekintzarako proposamena aurkeztu du bertako Berdintasun Zerbitzuak. 2024tik 2025 hasiera bitarte egindako prozesuaren lehen emaitza da, Emaginekin egina. Elkarte honetan formazio eta ikerketa feminista lan-tzen dute bereziki, eta zain-tzan sakontzen hasi ziren duela zortzi urte, mugimendu feministak gaia sukalde eta etxe zokoetatik plazara atera zuenean. 2018an eta 2019an Euskal Herriaren luze-zabalean egin ziren greba jendetsuen eta ondoko greba feminista orokorraren ondorioz, oihartzun handia hartu zuen gaiak.

Orain, auzia tokian tokiko politiketara eramatea da erronketako bat, eta horri hel-du diote Nafarroa iparraldeko eskualde honetan ere. Urteotan teoriatik eta batez ere zaintzaren lehen lerroan dauden esperientzietatik ikasi du mugimendu feministak. Testigantzei esker hasi da teoria hezurramitzen eta aldaketak bultzatzen. Lesakako Udaletxean egin den ekitaldian, ikerketa honetan parte hartu duten lagunen lagin bat bildu da. Badira zaintzaile profesionalak eta afektiboak. Eta badira udal, sindikatu eta hainbat eragileren ordezkariak eta norbanakoak ere.

MARKOA

Hagitx garrantzitsua da nondik begiratzen diogun errealtateari eta nondik egiten ditugun proposamenak. Eta lan honen markoa feminismoa da, argi eta garbi. Nagore Huegun Ibarbia Bortzirietako Berdintasun teknikariak eta Mi-

ren Aranguren Etxarte Emagineko kideak egin dute aurkeztepena. Emaginekoak erran duenez, feminismoaren ekarpenetako bat izan da aitor-tzea gure bizitzak zaurgarriak direla eta autosufizientziaren ideia gezur hutsa dela. Azaldu duenez, gauzak gertatzen zaizkigunean, eritzen garenean, bizi bat joaten denean edo bizi batek aitzinera egiten ez duenean, orduan gorpuzten dugu zaintza, baina bertzela, ez balego bezala jokatzen dugu. Hil berri den Pepe Mujicak bizia miraria delazioen. Gauza aunitz gertatu behar dira bizia egoteko, eta gauza horietako bat elkar zaintzea da. Zaintzarik gabe, prekaritatea gailentzen da.

«Ekomendekoak eta elkar-mendekoak gara. Etenik ez duen hari bat». Ikuspuntu horretatik, bizitza jartzen da erdigunean, kapitalaren metaketa deszentralizatuz.

ZER DA ZAIN-TZA?

Zaintza dena izan daiteke, baina dena baldin bada, ez da deus. Lanaren sarreran, kontzeptua zehazten da: «Zaintza lana, denbora eta esfortzua da. Esanahi subjektibo eta emozionalak ditu, gure izaerarekin eta intimitatearekin estuki lotzen baita. Zaintza zuzena izan daiteke, pertsonala zein erlazio-nala, eta zeharkakoa ere

bai. Ordaindua (formala) eta ez ordaindua (informala) izan daiteke. Zaintzea egoera mental bat ere bada, ume txiki bat edo mendekotasun handiko norbait zaintzen dugunean 24 orduz buruan eta gorputzean izaten dugulako. Aldiberekoa

Nagore Huegun Ibarbia
Bortzirietako Berdintasun
teknikaria zaintza lanen
diagnostikoa aurkeztzen,
Lesakako Udaleko batzar
aretoan.
Jagoba MANTEROLA / FOKU

da, gauza ugari egiten ditugulako batera. Horrek, karga mentala areagotzeaz gain, neurtzeko zaila egiten du».

Zaintza zerbait handiagoa ere bada: planeta honetako izaki guztiok aurrera egiteko behar duguna.

Alde ustel bat ere badu zaintzak: «Emakumeok etengabe desjabetzen gaitu. Izan ere, zaintzaile izatea ere bada emakume egiten gaituena. Eremu erabat feminizatua da». Zapalkuntza ugari gurutzatzen dira, gainera, zaintza lanetan: prekaritatea, txirotzearen feminizazioa, jardun bikoitzak, denboraren pobrezia, proiektuen alboratzea, bazterketa soziala, indarkeria matxista, eta abar.



Hil berri den Pepe Mujicak bizia miraria dela zioen. Gauza aunitzek gertatu behar dira bizia egoteko, eta gauza horietako bat elkar zaintzea da. Zaintzarik gabe, prekaritatea gailentzen da

Zaintza lana, denbora eta esfortzua da. Esanahi subjektibo eta emozionalak ditu. Ordaindua (formala) eta ez ordaindua (informala) izan daiteke. Egoera mental bat ere bada

Klase sozial baxuagoan bagaude, arrazializatuak bagara edo migratu badugu, gehiago pairatuko ditugu.

ZAINTZA KRISIA

Gure demografia eta antolaketaz soziala aldatu egin dira. Au-

nitez lagun gehiago bizi gara denbora gehiagoz, komunitateak lausotu dira, eta familia zabala ez dago lehen bezain hedatua. «Lehen emakumeen ejertzito bat zegoen zaintzan. Gaur egun, hori ere aldatu da pixka bat. Ahalduntzearen eta mugimendu feministaren ondorioz, jada ezin da espero emakumeok beti maitasunagatik eta doan zainduko dugunik. Egiten jarraitzen dugu, baina ez neurri berean».

Zaintzaren kate globalean, lehen katebegia iparraldeko emakumeek osatzen dute, ez dutelako nahi edo ezin dutelako inguruko zaintza lanez arduratu. Horiek lan merkatura ateratzen direnean, bertze emakume batzuegan uzten dituzte zaintzak. Horra bigarren katebegia, hegoaldetik migratu duten emakumeena.

Horiek, era berean, beren jatorrizko herrialdean inguruko bertze emakumeengan utzi dituzte ordura arte beren kargu zeuden lanak. Azken horiek dira hirugarren katebegia.

LANDA EREMUA

Lau ezaugarrirekin deskribatu dute Euskal Herriko (eta Bortzirietako) zaintza erregimena: hiperfeminizatua, familiarizatua, prekarizatua eta berpribatizatua. Legeek familiarizazioa eta arrazismoa sustatzen dituztela salatu dute.



2018ko Martxoaren 8an Lesakako plazan egin zen emakumeen kafe tertulia. Juan Carlos RUIZ | FOKU

Agertu dutenez, zerbitzu gehiago jarri beharrean, dirulaguntza ekonomikoen alde egiten dute.

Zaintza zerbait salbuespenezko bezala hartzen da oraindik, ez guztion eskubide bezala. Mugimendu feministak defendatzen duena da antolaketak politikoa egin dadila eskubide horien kargu.

Bortzirietan, azken urteetan populazioak goiti egin du, bereziki herri handietan, Beran eta Lesakan. Gainontzekoetan mantendu egin da. 8.537 biztanle ziren denera 2023an. Horietatik %2,8k dute mendeko-

tasun aitortua, hau da, 238 herritarrek, eta 46 dira gizarte zerbitzuetako erabiltzaileak. Kontuan hartu behar da dauden premiak handiagoak direla, pertsona batzuek ez baitute mendekotasun aitortua.

MENDEKOTASUNA, GOITI


Adinekoen artean, gehiengo emakumeak dira, baita zaintza premia dutenen artean ere (%71,7). Mendekotasunaren feminizazio bat dago, beraz. Eta, maiz, bakardadearen feminizazio bat. Mendekotasuna, gainera, goiti doa. 2019an mendekotasun handiarekin zeudenak

ZAHARTZE INDIZEA HANDIAGOA DA LANDAN

Bortziriak landa eremua dira, eta badituzte zenbait berezitasun. Landako emakumeak nekazariak izan dira nagusiki. Baserriek emakumeei esker funtzionatu dute, langile nekaezinaren ideari lotuta. Etxea zaindu dute, bertan bizi ziren guziak, ingurua zaindu dute eta baserriko lanak ere eraman dituzte aitzinera. Industrializazio prozesuak, ordea, eraiki zuten kultur ondare aberatsa baztertu zuen eta emakume landatarrak zokoratu zituen.

Faktore demografikoak ere badaude. Haur gutxiago jaiotzen da, gazteek landa eremua utzi dute, eta jendea gero eta gehiago bizitzen da. Ondorioz, zahartze indizea Nafarroako batezbestekoa baino dezente handiagoa da Bortzirietan. Horrek zaintza lanen pisua handitzen du eta aunitzetan bertze emakume batzuen kontrataziora jotzen da. Gehienetan migratu duten emakumeak daude zaintza lan profesionaletan.





gutxiengoa ziren arren, 2023an gradu horretan zeudenak ziren nagusi.

Zaintzaren eta euskararen ar-teko lotura ere aztertu dute. Zaintza gure izaerari eta intimi-tateari lotua dagoenez, guretzat garrantzitsuak diren moduetan jaso nahi izaten dugu, eta hiz-kuntza funtsezkoa da aunitzen-tzat. Bortziriak euskaldunak di-ra eta, defendatu dutenez, zaintza euskararekin nola guru-tzatuko den pentsatu behar da.

ELKARRIZAN, ALTXOR HANDI BAT

Jubilotekek daude bortz he-rrietan. Guztira 58 emakumek eta 16 gizonak erabiltzen di-tuzte, eta hagitz ongi balora-tzen dituzte. Udaleku irekie-kin berdina gertatzen da: balorazio hagitz ona dute. 262 parte-hartzaile dituzte. Eskual-dean bada bertze altxor bat: Elkarrizan, 63 boluntariok osa-tutako elkarte. 3.800 bolun-tario lanordu egiten dituzte.

Familieta zaintzen dutenak emakumeak dira nagusiki. Haur txiki bat edo mendekota-sun handia duen senide bat zaintzen dutenen bizitzan ete-naldi bat gertatzen da, 24 or-duko dedikazioa dutelako, kar-ga mental handia eta eragin fisiko eta psikologikoak. Solda-tapeko lana dutenek kontzilia-zio arazo larriak ere badituzte.

Gaixotasunak tarteko dau-denean, egoera aunitz larri-tzen da eta lan zama areago-tzen da. Ez dago ikuspegi

«Lehen, emakumeen ejertzito bat zegoen zaintzan. Jada ezin da espero emakumeok beti maitasunagatik eta doan zainduko dugunik. Egiten jarraitzen dugu, baina ez neurri berean»

Haur txiki baten edo mendekotasun handiko senide baten zaintzaileen bizitzan eten bat dago, 24 orduko arreta dutelako, karga mental handia eta eragin fisiko eta psikologikoak

prebentiborik eta egoerak ez-tanda egiten duenean urgen-tziaz jotzen dute zerbitzuetara. Hori aldatzeko, garrantzitsua da prebentzio lana egitea, bai-ta baliabideen sozializazioa ere, aldarrikatu dutenez.

Mendekotasun balorazio prozedurak motelak dira, eta erabat burokratizatuak daude. Hori aldatzea ez dute erraza ikusten, baina tokiko erakun-deek prozeduretan laguntzen ahal dutela planteatu dute.

Gizarte zerbitzuen balorazio baikorra egiten dute erabil-tzaileek. Hala ere, zerbitzuak hedatu eta hobetu behar dire-la uste dute.

AMATASUNA

Gurasoak gonbidatu zituzten ikerketara, baina amak baka-rrik etorri ziren. Hori bera ba-da datu esanguratsu bat. Gizo-nen absentzia nabarmena da. Lan zamarik handiena emaku-meez dute eta gizonen eran-tzukidetasuna falta dela diote, baita parte emozionalean ere.

Jaso dutenez, haurdunaldia eta erditzea ikusezinak dira, eta baliabide publikoak ez dira aski. Indarkeria obstetrikokoaz ere gero eta kontzientzia han-diagoa dago, eta erditzearen beldur da ama aunitz. Erdi-tzeoondoa eta edoskitzea, be-rriz, epaiak zeharkatzen ditu.

Ama izateak enpleguan zi-gor handiak eragiten ditu, eta isolamendua ere badakar. Sare berrien beharra agertu da.

ADINEKO PERTSONAK

Alabak dira adineko pertsonen zaintzaile nagusiak. Aunitz etxean artatzen dituzte, haien desioa betez. Zerbitzu batzuk erabiltzeko orduan lotsa nagu-sitzen dela ohartu dira eta, ho-ri gaitzitzeko, garrantzitsua ikusten dute inongo zerbitzu-rik ez estigmatizatzea.

Aunitzek bakardadea senti-tzen dutenez, etxez etxeko la-guntza zerbitzua akonpain-a-mendurako eskaintzea proposatu dute. Bertzalde, zer-bitzuen zentralizazioa kritika-tu dute eta landa eremuko he-rritarrek eskubide berak dituztela aldarrikatu dute.

Zaintzaile profesional gehie-nak emakumeak dira Bortzi-rietan, klase baxu eta ertaine-koak, eta geroz eta gehiago atzerritik etorritakoak. Gehie-nek bertzelako zaintza ardura batzuk dituzte, bertan edo ja-torritzko herrialdean, eta ez du-te beren lana behar bezala ai-tortua sentitzen.

ETXEZ ETXEO LAGUNTZA ZERBITZUA

Zazpi emakume ari dira la-nean etxez etxeko laguntza zerbitzuan (hiru jardun osoan). 40 pertsona artatzen dituzte eta gehienez bi orduko zerbitzuak eskaintzen dira. Fa-milientzako zerbitzu mugatua da, baina aldi berean arnasa.

Arreta ereduak kezka sor-tzen du, ezin baitute beti per-sona ardatz duen zaintza es-kaini. Eragin fisiko eta emozional handia sentitzen dute, gainera. Aldiz, lan bal-dintzekin eta koordinazio ere-duarekin konforme daude.

ADINEKOEN EGOITZAK

Bi egoitza eredu ezberdin dau-de Bortzirietan eta bietan al-daketa prozesuan daude: Be-ran, lan baldintzak hobetzeko, eta Lesakan, barne antolake-tan. Bi egoitzak dira txikiak. Lesakakoa irekia da; Berakoa, aldiz, itxiagoa, erabiltzaileen mendekotasun maila hagitzez altuagoa delako. Bietan dabil-tza erlojuaren kontra, denbora faltan, bereziki Beran.

Alde ona da herrian erro-tuak daudela. Kokagune apro-posak dituzte eta horrek auke-

ra ematen du adinekoak komunitatearen parte izateko.

Atzerritartasun Lege Organikoak eta Etxeko Zerbitzuaren Errege Dekretuak erabat baldintzatutako errealitate ezkutua da etxeko langileena. Bortzirietan profil ugari daude: internak daude, orduka lan egiten dutenak, bertakoak zein atzeritik etorri direnak.

Atzeritik etorritakoen kasuan, distantziara ama izateak eragin handia du. Egoera emozional hauskorrean jartzen ditu emakumeak.

Landa eremuan dauden erronkak agerikoagoak dira etxeko langileen kasuan: garraio arazoak dituzte, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak eta zerbitzu eskasia. Hala ere, hurbiltasuna eta harrera ego-kia jaso dutela diote.

Euskara ikastea nahia eta desioa da. Zailtasun handiak dituzte horretarako, ordea.

ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK

Herritarrekin egindako lan saioetatik eta kolektiboekin izandako elkarrizketetatik etorkizunerako erronka eta proposamen batzuk zehaztu dituzte. Lehenik eta behin, zaintzak erdigunean kokatzeko egiturak sortu behar direla aldarrikatu dute, gaur egun ez baitago zaintza sistemarik, ir-latxoak baizik. Berariazko egiturak eraikitzea da erronka, komunitatearekin uztartuta.

Zaintza mahaiak sortzea, mankomunitateen elkarlana eta koordinazioa aztertzea, aurrekontuak zehaztea eta Nafarroako Zaintza Ituna sinatzea proposatu dute. Nagore Huegun Berdintasun teknikariak azaldu duenez, Nafarroako Gobernuak apustua egin du lehen kontziliazio ituna zena zaintza itun izan dadin, ikuspegi feminista kontuan izanik.

2026rako dago aurreikusia horren aldeko pausoak ematea.

Baliabide ekonomikoez gain, eragile eta norbanakoek konpromiso zehatzagoak hartzeko aukera emanen du itunak.

Arreta eredua eta zerbitzuak hobetzeko, pertsona ardatz duen arretarako trantsizioa planteatu dute. Zerbitzuen ezagutza hedatzea, horien dibertsifikazioa eta zabalpena; erresidentzien kudeaketa erdua aztertzea; haurren zaintza zerbitzuak hedatzea; erditze ondoko arreta eskaintzea; eta hezkuntzan zaintzaren pedagogia zabaltzea.

Zaintzaileen bizi eta lan baldintzak hobetze aldera, topaguneak sortzea, garraioaz hausnartzea, etxeko langileen egoeraz sentsibilizatzea eta gizonen absentiari aurre egite-

Gurasoak gonbidatu zituzten ikerketara, baina amak bakarrik etorri ziren. Hori bera bada datu esanguratsu bat. Gizonen absentsia nabarmena da, baita parte emozionalean ere

Nafarroako Gobernuak apustua egin du lehen kontziliazio ituna zena zaintza itun izan dadin, ikuspegi feminista kontuan izanik. 2026rako dago aurreikusia pausoak ematea

ko estrategiak lantzea proposatu dute.

Saretze komunitarioa indartzeko, bakardadeen gainean gogoetatzea, orotariko zaintza beharrak asetzeko akonpainamendu eta sareak sustatzea, auzolanaren kultura hedatzea, euskara ikasteko baliabide publiko eta komunitarioak sortzea eta jantokiez hausnartzea

izan daitezke ekintza interesgarri batzuk.

Huegunek adierazi duenez, hemen ez da deus bukatzen. Errealitatera hurbildu dira, beharrak atzeman dituzte, eta horiek betetzeko eta egoera hobetzeko, akordio zabalak eta konpromiso irmoak hartzeko abagunea sortzea da orain duten eginbeharra.

Aitzineko orrialdeko grafikoa Emaginek egina da, Nastatek INEren errolda jarraituaren estatistikako datuetatik abiatuta sorturiko datuetan oinarrituta. Lerro hauen azpian, berriz, 2019ko Martxoaren 8an Bilbon egindako mobilizazio erraldoia ageri da. EMAGIN - Luis JAUREGIALTZO - FOKU

